

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure produktua jaio zen behar bat ikusten genuelako supermerkatuetan eta merkataritza-gune handietan. Erosketa denbora aurrezteko bururatu zitzaigun produktua sortzea. Erraztasun horrek kontsumitzailearen erosketari autonomia emango dio. Gainera, produktu horrek merkatu-gune handietan teknologia aurrerapen bat eragingo du. Ez hori bakarrik, gure produktuak kontsumitzaileak dirua aurrezteko egingo du, merkatu-gune horien pasiluetan galtzeko arrisku txikiagoa izango duelako eta gure produktuarekin bakarrik behar dituen produktuak erostera bultzatuko dielako. Horretaz aparte, supermerkatuen bezeroen erosotasuna bilatuz, gure produktuak app bat izango du, non bere erosketa zerrenda egin dezakeen, eta momentuan bertan dendan zerrenda egin ordez, etxetik egin eraman dezake eta dendan bertan bakoitzaren appko usuario eta kontraseña sartuz, zerrenda berehala egingo luke app-ak, ahalik eta denbora gutxien galtzeko. Supermerkatuan karritoa hartzerakoan mic-phonan bezeroak bere usuarioa sartu beharko du, eta bertan bere zerrendak aterako zaizkio. Erosterakoan, produktu guztiak kaxatik pasa beharrean, mic-phonak ticketa zuzenean ateratzen du, supermerkatuko kola luzeak aurreztuz. Beraz, gure produktuak ez lieke bakarrik kontsumitzaileei onurik emango, supermerkatuei ere emango lizkielako. Supermerkatuei ematen zaien beste onura batzuk dira bere kaxako langileak murriztuko lituzkela, eta etorkizunari begira beste supermerkatuekiko aurrerapenak izango dituelako.

